



QTLeap proiektuak arrakastaz lortu du D Mugarria: 1. pilotuak itzulpen automatiko sakoneko lehen sistemak aurkeztu ditu.

QTLeap - Quality Translation by Deep Language Engineering Approaches Europako Batzordeak finantzaturako lankidetzako proiektua da, honako zortzi partaide hauek osaturako partzuergo batek aurrera eramaten duena: Adimen Artifizialerako Ikerketa Zentro Alemanak, Berlineko Humboldt Unibertsitateak, Bulgariako Zientzien Akademiak, Euskal Herriko Unibertsitateak, Groningeneko Unibertsitateak, Lisboako Unibertsitateak, Pragako Charles Unibertsitateak eta Higher Functions enpresa portugesak.

QTLeap proiektuaren helburua Itzulpen Automatikorako (IA) soluzio berriak aztertzen dituen metodologia berritzaile bat ikertzea eta garatzea da, ingeniariak linguistiko sakoneko hurbilpenak erabiliz kalitate handiagoko itzulpenak lortzeko.

2015eko martxoan, proiektuak arrakastaz lortu zuen "Sakontzen" lemadun D Mugarria. 1. pilotuak lehen IA sistema sakonak aurkeztu zituen proiektuko hizkuntza guztietarako: aleman, bulgariara, euskara, gaztelania, ingeles, nederlandera, portugesez eta txekierarako. Sistemak jakintza linguistikoz aberastean datza IA sistema sakonen giltzarria. Egindako ebaluazioek hobekuntzak erakutsi dituzte 0. pilotuarekiko, eta hurrengo pilotuak prestatzeko lerroak zabaldu dituzte.

1. pilotua sistema aurreratua da, erabiltzaileen eskaerak erantzutea posible egiten duena, txat bidezko bezero-arreta eleanitz batean, informatikari buruzko arazoak konpontzeko. Prototipo honen ezaugarri nagusia da galdera eta erantzunak hizkuntza pibote bakarrean gordetzen dituen datu-base bat erabili arren, hizkuntza askotan jaso ditzakeela galderak eta eman ditzakeela erantzunak. Prototipoa 2. eta 3. pilotuetan hobetuko da, jakintza aberatsagoa duten osagaiak gehitzen doazen heinean.

Ikerketaren emaitzek erakusten dute lehen sistema hauetan erabiltzen den teknologia gai dela jada batez beste %40-60 artean gutxitzeko bezero-arreta baten hizkuntza bat gehitzearen kostua, eta ondorioz, merkatu berri batera irekitzearen kostua ere.

Informazio zabalagoa lortzeko eta harremanetarako, bisitatu:

Web gunea: <http://qtleap.eu/>

Facebook: <https://www.facebook.com/qtleap>

Twitter: <https://twitter.com/QTLeap>

LinkedIn: https://www.linkedin.com/company/qtleap-project?trk=EML_cp-admin

Mendeley: <https://www.mendeley.com/sign-in/>



QTLeap proiektuak diru-laguntza jaso du Europar Batasuneko Zazpigarren Esparru Programatik, ikerketarako, teknologiaren garapenerako eta erakusketarako 610516 zenbakidun laguntza-akordioaren barruan.